



Gomendiourrutia (-a) etxebizitza

Aldakerak: Urrutia

Ahozkoa: Komiñúrti



43° 9' 39"

2° 34' 28"

Berriz Iruditan / J.A. Ramos

"... una casería llamada Gomendio-Urrutia... en la barriada o Cofradía de Murgoitio de la anteiglesia de Berriz, es de dos viviendas, la una hacia el Norte, compuesta de piso bajo, de cocina, dos cuartos y cuadra, y el segundo de dos cuartos, camarote y pajar, y la otra hacia el Mediodía la que en el piso bajo tiene cocina y cuerdas, y en la que en el de arriba una sala con dos cuartos, camarote y pajar, existe al frente de la casa la arnaga con el horno, y ocupa con la portalada y zaguanes ciento noventa y cuatro estados de planta solar..."
DJE 6/143 or. (1895)

Bi bizitzako baserri honen inguruko lehen arrasto dokumentala 1704. urteko su-erroldan aurkitzen dugu, bertan *Gomendio Urruti* izenarekin Murgoitio kofradiako baserri bat agertzen baita. Ordutik aurrera, errolda guztietan izango dugu baserri honen berri. Auzokoen artean, *Komiñúrti* da erabilitako izena *Martilarren* magalean kokatzen den baserri honi erreferentzia egiteko. Baserritik *Gomendio* multzoko baserri guztiak bistaratzen dira. Aurrealdean, bi eraikin agertzen dira: bilategia eta *Etxeaurrekogaraie* moduan ezagutzen dena.

Baserri-etxe handia da, bi isurkitako teilatuarekin, eta eraldaketa bat baino gehiago jasan ditu. Alboko fatxadetan eta fatxada nagusian argi eta garbi antzeman daiteke hori, zulatutako leiho berrietan, ezkerreko zurezko balkoian, lehenengo solairuko balkoiaren hegalean eta alde batean leiho bati dagokion tokian ezarritako armarrarian. Oinarritzko tipologia argia da, Ba-

rroko garaikoa. Erdialdea nabarmendu gura izan zuten, arku zoragarriaren eta gaineko balkoien bitartez, eta alboetan leihoak jarrita, pisuka antolatuta. Alboan, ezkerretara, beste sarrera bat dauka, harrizko ateburu dotorearekin eta leiho batekin gainean. Harlangaitza erabili bazuten ere, ate-zangoak, atek, arkua, etxe-kantoiak, leihoak eta balkoi guztiak harlandu ederrez horniturik daude. Atarteko ateburuan dagoen inskripzioak eraikuntzaren balizko data adierazten digu: "AÑO DE 1791". Armariari erreparatzen badiogu, Gomendio Urrutiartar batena dela ikus daiteke eta fatxada nagusia egin ostean zizelkatu zutela, nahiz eta zaharragoa dirudien. Badakigu horrela izan zela, etxearen albo ez delako oso leku aproposa armari bat jartzeko. Baliteke, gainera, etxe zaharreko armarraria izatea.